LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

2011ko OTSAILAREN 3an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2011ko otsailaren 3an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.00 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Gotzon Jauregi Sarasola
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria azaltzen du: Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
   - **2011ko urtarrilaren 13an egindako ohiko bilkura**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **03/2010 Kreditu aldaketaren onespena, Kreditu gehigarriak modalitatean.**
4. **2011 urterako euskara ikastaroetako diru-laguntzen onespena, hala bada.**
5. **Otxozabal baserrirako ur toma bat hartzeko baimena eskaera, hala bada.**
6. **Larrola nekazaritza ustiategiaren inguruan egindako hobiari buruzko eskaera aztertu, hala bada.**
7. **Fakturak eta ordainketak.**
8. **Beste batzuk.**
9. **Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA
ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- 2011 urteko urtarrilaren 13ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

03/2011 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 20koa, 2010eko 4. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

04/2011 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 25koa, C.A.S.O. jaunari Larraulgo biztanleriaren Udal Erroldatik baja ematea, erroldatu zenetik bi urte igaro ondoren bere inskripzioa berritu ez duelako, ebazten duena.

05/2011 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 28koa, 03/2010 kreditu Aldaketarako espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA
03/2011 KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA, KREDITU GEHIGARRIAK MODALITATEAN

Udala honen 2010 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, ahobatez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena

Aurrekontu-partida	Kontzeptua	**Kredituak**		
		Egungoa	Aldaketak	**Behin-betikoak**
120.120.00.01	**Funtzionarien oinarrizko ordain.**	**34.000,00**	**4.402,12**	**38.402,12**
130.510.00.01	**Laboral finkoen ordainke**	**12.000,00**	**1.808,90**	**13.808,90**
131.120.00.01	**Aldarteko laboralen ordainketa**	**6.000,00**	**440,56**	**6.440,56**
160.111.00.01	**Gizarte Segurantza alkatea**	**4.700,00**	**337,46**	**5.037,46**
160.120.00.01	**Gizarte Segurantza funtzionario**	**9.200,00**	**2.123,95**	**11.323,95**
160.120.01.01	**Gizarte Segurantza laboralak**	**6.100,00**	**1.821,36**	**7.921,36**
160.120.00.04	**Elkarkidetza kuotak**	**1.200,00**	**200,60**	**1.400,60**
163.111.00.05	**Goi karguen bizi aseguroak**	**1.400,00**	**548,82**	**1.948,82**
210.441.00.01	**Azpiegitura gastuak: ur sarea**	**1.000,00**	**2.202,93**	**3.163,16**
210.510.00.01	**Azpiegitura eta ondasun gastua**	**10.000,00**	**1.934,72**	**11.934,72**
212.433.00.02	**Azpiegitura gastua:Argiteri publikoa**	**500,00**	**279,03**	**779,03**
221.433.00.01	**Argi hornidura: argitegi publikoa**	**5.000,00**	**626,28**	**5.626,28**
222.120.00.01	**Telefono bidezko komunikazioak**	**4.500,00**	**955,26**	**5.455,26**
226.450.00.06	**Herriko jaiak**	**9.000,00**	**207,82**	**9.207,82**
227.120.00.01	**Garbiketa zerbitzuak**	**500,00**	**125,50**	**625,50**
421.120.00.01	**Mankomunitate eta kontsor.**	**17.065,60**	**79,75**	**17.145,35**
422.120.00.01	**Beste entitatei ekarpenak**	**21.000,00**	**809,93**	**21.809,93**

226.451.00.99	**Inbertsioak: Ondare ondasunak**	**4.000,00**	**1.696,72**	**5.696,72**
685.120.00.02	**Inbertsioak: Udalaren kudeaketa**	**3.329,05**	**5,38**	**3.334,43**
GUZTIRA			**20.607,09**	

Kreditu gehigarriak finantziatzeko proposamena

Sarreren kontzeptuak edota gastuen partidak	***Baliabidearen kontzeptua***	**Sarrera handiagoak/ gastuetako bajak**	**Baliabidearen partziala**
2.0000.870.000.00.01	***Diruzaintzako gerakina***	**20.607,09**	**100**
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		**20.607,09**	

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendeaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

LAUGARREN PUNTUA
2011 URTERAKO EUSKARA IKASTAROETAKO DIRU-LAGUNTZAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak 2010eko abenduaren 2an ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2010-2011 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik abenduaren 31rarteko epea finkatu zela diru-laguntza hauen eskaerak egiteko.

Ikusirik epe horren barruan hainbat eskaera aurkeztu direla, onartutako 2 , 3 eta 4 oinarriak betetzen dituztela, ondorengoak direlarik:

IZEN ABIZENAK	**JARDUERA**
I.S.G.	EUSKARA
F.A.O.	EUSKARA
P.P.S.	EUSKARA
J.G.A.	EUSKARA

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2010-2011 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak onestea.

BIGARRENA.- Diru-laguntzak arautzen dituzten 8. oinarriak dioenari jarraiki onartutako diru-laguntzaren ordainketa egiteko xede diren ekintza egitasmo edo helburuak bete direla justifikatzen denean, horretarako gastua burutu izanaren faktura eta agiriak aurkeztu beharko dira.

HIRUGARREA.- 2011 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

BOSTGARREN PUNTUA
OTXOZABAL BASERRIRAKO UR TOMA BAT HARTZEKO BAIMENA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik P.T.A. jaunak eginiko eskaera, non, Otxozabal baserrirako ur sare orokorretik, ur toma bat hartzeko baimena eskaera egiten duen.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- P.T.A. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Otxozabal baserrirako ur sare orokorretik ur toma bat hartzeko baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA
LARROLA NEKAZARITZA USTIATEGIAREN INGURUAN EGINIKO HOBIARI BURUZKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik J.T.O. jaunari jakinarazi zitzaiola 2010eko azaroaren 4an egindako Udalbatzaren errekerimendua, non hilabeteko epea ematen zitzaion Larrola nekazaritza ustiategiaren inguruan eginiko hobia kentzeko eta inguruko etxeetatik gutxienez 50 metrotara kokatu beharko zuela eta ondoko lursailaren mugetatik 8 metrotara gutxieneko distantzia mantendu beharko zuela. Ohartaraziz, errekerimendu hau beteko ez balu, Udalk, aipaturiko hobia kenduko zuela eta honen kostua J.T.O. jaunak ordaindu beharko zuela.

Ikusirik J.T.O. jaunari goian aipaturiko erabakia 2010eko azaroaren 19an jakinarazi zitzaiola.

Ikusirik J.T.O. jaunak hilabeteko epean ez duela ezer egin.

Ikusirik J.T.O. jaunari jakinarazi zitzaiola 2011ko urtarrilaren 13an egindako Udalbatzaren erabakia non, alde batetik, aste beteko epea eman zitzaion 2010eko azaroaren 4an Udalbatzak hartutako erabakia betetzeko luzapena eskatzeko eta bestetik, 2011ko urtarrilaren 31arteko epea eman zitzaion, Larraulgo Udalean azaltzeko hobiarekin zer egin nahi zuen, nola egin behar zuen eta ze datatan egin behar zuen esateko.

Ikusirik, 2011ko urtarrilaren 14ean, J.T.O. jaunak Larraulgo Udalean eginiko eskaera, non hilabeteko luzapena eskatzen zuen aipaturiko hobia kondenatzeko, hormigoizko enkofratua prestatu eta hobia betetzeko. Eta aldi berean Batzarkideei jakinarazteko hobi berria egiteko eskaera beharrezkoa egiten zitzaionean egingo duela, hau da udara aldera.

Ikusirik batzarkide guztiek ados daudela, J.T.O. jaunari eskatutakoa emateko, hau da, hilabeteko epea emateko hobia kondenatzeko.

Ikusirik, batzarkideen artean adostasun falta dagoela, artoaren likidoa jasoko duen sistema Udalean baimena eskaera egiteari buruzkoa, batzuek orain izan behar duela diote eta beste batzuek sistemaren zehaztapena azaldu eta Udalak aztertu ondoren egokitzat hartuz gero obra baimena eta obra exekuzioa berriro arto berriak ekarri aurretik izan behar duela diote. Horregatik gaia bozkatu egiten da. Hau da, bozkatzen den proposamena:

"J.T.O. jaunari jakinarazi artoaren likidoa biltzeko sistemaren zehaztapena azaldu behar duela eta Udalak aztertu ondoren egokitzat hartuz gero, obra baimena eta obra exekuzioa arto berriak ekarri aurretik izan behar duela."

Gaia bozkaturik, ondorengoa da emaitza:

Aldeko botuak: 2 (Xabier Mujika eta Igor Barandiaran, Alkate eta zinegotzia)
Kontrako botuak: 2 (Gotzon Jauregi eta Adela Mendiola zinegotziak)
Abstentzioa: 0

Beraz, Udalbatza honek, Alkate-Lehendakariaren karitatezko botuarekin, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.T.O. jaunari jakinarazi jakinarazpen hau jasotzen duen momentutik hasita hilabeteko epea izango duela egindako hobia kondenatzeko eta betirako erabilezina bihurtzeko.

BIGARRENA: J.T.O. jaunari jakinarazi artoaren likidoa biltzeko sistemaren zehaztapena azaldu behar duela eta Udalak aztertu ondoren egokitzat hartuz gero, obra baimena eta obra exekuzioa arto berriak ekarri aurretik izan behar duela."

HIRUGARRENA: J.T.O. eta J.J.S. jaunari erabaki hauen berri ematea.

<u>ZAZPIGARREN *PUNTUA*</u>
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

FERRETERIA BARBE	188,78
ULAHI	803,70
IZFE	1.918,55
ZITU	1.288,00
IBERDROLA	19,62
IBERDROLA	12,83
IBERDROLA	192,67
IBERDROLA	66,65
IBERDROLA	253,97
IBERDROLA	191,60
MOVISTAR	90,62
MOVISTAR	17,87
MOVISTAR	89,81

MOVISTAR	20,47
EUSKALTEL	155,71

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **5.310,85** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

8.1.M.C.G. ANDREAK EGINIKO ESKAERA ONESTU, HALA BADA

Ikusirik M.C.G. andreak eginiko eskaera, non Sorozelai 41 esk. Etxean obra baimenik gabe egin dituen lanen legeztatze proiektua Udal honetara aurkezteko epearen luzapena eskatzen duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.C.G. andreari hilabeteko epea ematea, jakinarazpen hau jasotzen duen momentutik hasita, Sorozelai 41 esk. Etxean lizentziarik gabe egin dituen obrak legeztatzeko dagokion proiektua Udaletxe honetara ekartzeko.

BIGARRENA: Erabaki honen berri M.C.G. andreari ematea.

8.2. HERRI OSTATUAREN KUDEAKETAREN JARRAIPENAREN BERRI EMATEA

Ikusirik, Udaletxe honi jakitera eman diotela, Larraulgo Ostatuaren kudeaketa eramaten duenak hainbat zor dituela.

Ikusirik, Udaletxe honek jakitera izan duela, Ostatuaren kudeaketa eramaten duenak zorrak kitatzeko hainbat pauso eman dituela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: T.P. jaunak Larraulgo Ostatuaren kudeaketa eramaten duenak, dituen zorrak kitatzeko eman behar dituen pausoen jarraipena egitea, zorrak kitatu arte eta hemendik aurrera fakturen ordainketa egiten direla ziurtatu arte.

8.3. 2011ko MAIATZAREN 22 OSPATUKO DIREN UDAL HAUTESKUNDEEI BURUZKO PROPOSAMENA, HALA BADA

Ikusirik datorren maiatzaren 22an Udal Hauteskundeak ospatuko direla. Horretarako Herri Aukera Taldearen zerrendaren aukeraketa egin behar da.

Ikusirik Herri Aukera Taldearen aukeraketa egiteko herri bilera bat antolatu behar dela. Proposatzen delarik Larraulgo Kultur-gunean egitea, martxoaren 27an igandea, eguerdiko 12etan. Horretarako herritar guztiei jakinaraziko zaielarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Herritar guztiak gonbidatzea, datorren martxoaren 27an Larraulgo Kultur-gunean eguerdiko 12etan egingo den herri bilerara, bertan datorren maiatzaren 22an ospatuko diren Udal Hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko Larraulgo Herri Aukera Taldea osatuko delarik.

8.4. NATURA 2000 SAREKO ERNIO-GATZUME LEKUA KONTSERBAZIO BEREZIKO ERAMU (KBE) IZENDATZEA ETA LEKU HORRI DAGOZKION ZAINTZA-NEURRIAK ONARTZEARI BURUZKO HASIERAKO ONARPENAREN BERRI EMATEA

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumen Sailburuordetzatik igorritako idatzia, non Natura 2000 sareko Ernio-Gatzume lekua kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzea eta leku horri dagozkion zaintza-neurriak finkatzeko dekretu-egitasmoari hasierako onespena ematea erabaki zuela ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak 2010eko abenduaren 23ko aginduaren bidez.

Espedientea bideratzen jarraitzeko (idatzian dioenez), 2011ko otsailaren 4an, jendaurreko informaziorako 30 egun naturaleko epea zabaltzeko iragarkia argitaratuko da EHAAn, epe hori 2011ko martxoaren 7an bukatuko delarik.

Ondorioz, Larraulgo Udalak interesa badu, dagokion txostena igorri beharko du Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzara 2011ko martxoaren 7a baino lehen.

Gaia azterturik, bertaratuek jakin gainean gelditzen dira.

8.5.LARRAULGO MULLADI 13-A ETXEAREN LORATEGIAN NEGUTEGI BAT JARTZEKO BAIMENA ESKAERA, K.I.M.

Ikusirik K.I.M. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Mulladi 13-A etxearen lorategian negutegi bat jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion Arkitektuak, 2011ko otsailaren 2an eginiko txostenean dioena:

*"**LARRAULGO MULLADI 13-A ETXEAREN LORATEGIAN NEGUTEGI BAT JARTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA***

K.I.M. jaunak, Larraulgo Mulladi 13-A etxearen atzealdean duten lursail pribatuan negutegi bat jartzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen batazbesteko aurrekontua eta negutegiaren ezaugarriak azaltzen duen idatzi bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako eskarian, 3m x 6m-ko azalera eta 2,00m-ko altuera duen negutegi bat jartzeko asmoa azaltzen da, etxearen atzealdeko lorategian dagoen lur pribatuan kokatuko litzatekeelarik.

Idatziaren arabera, negutegiak egurrezko egitura eta plastiko gardenezko itxitura bat izango du.

2/2006 Lurzoruaren legearen 207 artikuluaren ñ puntuaren arabera, negutegien instalazioek hirigintza lizentzia behar dute.

Eraikin desmuntagarri hauek bizitegi erabilera batekin bateragarriak dira, beti ere erabilera bukatzean negutegia botatzeko konpromezua hartzen bada.

Mulladi 13-A etxea, Larraulgo lur-hiritargarrian kokatua dago, A.I.U.1 Kaskoaren eremuan.

Larraulgo araudiaren arabera Kaskoan dauden etxebizitzak finkatuak gelditzen dira eraikuntza gehiago egiteko aukerarik gabe.

Larraulgo 19º artikuluak eraikuntza aprobetxamenduak arautzen ditu. Honen arabera, 1.80m-tako altuera librea baino gutxiago duten gune estali eta itxiek ez dute konputatzen.

Beraz, negutegiak 1,80m-tako altuera baino gehiago duenez, ez da onargarria udal baimena ematea."

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: K.I.M. jaunak eginiko baimena eskaera ukatu, Udal Teknikariak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak ez direlako betetzen.

BIGARRENA: Erabaki honen berri K.I.M. jaunari ematea.

8.6.ADELA MENDIOLA GOMEZ ZINEGOTZIAK AURKEZTURIKO ADIERAZPENA ONESTU, HALA BADA

Ondoren Adela Mendiola Gomez zinegotziak ondorengo adierazpena aurkezten du:

Nik, Adela Mendiola Gomez andreak, NAN 15944413P, Larraulgo Zinegotziak, 2011´ko Otsailaren 3´an izango den Larraulgo Plenoan, Adierazi hau tratatu nahi dut.

KONTUAN IZANIK
Larrola baserrian egin zen obran ez zela Udalak eman zituen baimenean azaltzen diren ezaugarriak bete.

KONTUAN IZANIK
Horren ondorioz, Udaletxean denuntzia bat sartu zuela larrolako bizilagunak, Jauregi jaunak, hain zuzen.

KONTUAN IZANIK
Egoera horren aurrean Udalak eman dituen pausoak plenoz onartu direla.

ZERA ADIERAZI NAHI DUT

1.Lehen eta behin, Xabier Mujika jaunak, hau da Larrauleko Alkateak, Udaletxean tratatu ditugun gai guztietan, informazio zuzena eta egokia eman digula egin ditugun bilera desberdinetan.

2. Bigarrenik, Xabier Mujikak, Larraulgo Alkate bezala, eman dituen pauso guztietan, Udaletxean hartu diren erabakiak errespetatu dituela.

3.Hirugarrenik, Xabier Mujikaren jokaera zuzena izan dela, eta ados nagoela hartu dituen erabaki guztiekin."

Ondoren, gaia bozkatu egiten da, ondorengoa delarik emaitza:

-Aldeko botoak: 3 (Adela Mendiola, Igor Barandiaran eta Gotzon Jauregi zinegotziak)
-Kontrako botoak: 0
-Abstentzioak: 1 (Xabier Mujika, Alkatea)

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Adela Mendiola Gomez zinegotziak aurkezturiko adierazpena onestea.

8.7.HEZKUNTZA SAILBURUORDEARI, HAU DA, Mª ANTONIA OZCARIZ RUBIO ANDEREARI IGORRI BEHAR ZAION IDATZIA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik, Mª Antonia Ozcariz Rubio hezkuntza sailburuordeak Larraulgo bi gurasori igorritako idatzia.

Ikusirik aipaturiko idatziari erantzuna emateko Larraulgo Udalak, Guraso Elkarteak, EHIGE-k, Eskola Txikien Koordinakundeak, Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapeneko elkarteak eta Aiztondo Mankomunitateak prestaturiko idatzia, ondorengoa diolarik:

"Mª Antonia Ozcariz Rubio anderea

Hezkuntza Sailburuordea

Larraulgo bi gurasori igorritako jakinarazpenaren inguruan, Larraulgo Udalak, Guraso Elkarteak, EHIGE-k, Eskola Txikien Koordinakundeak, Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapeneko elkarteak eta Aiztondo Mankomunitateak honako hau jakinarazten dizugu:

Bat egiten dugu zure gutunean aipatzen dituzun dekretuekin.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 22.2 artikuluak ezartzen duenez, "Haur eta nerabe guztiek oinarrizko irakaskuntza jasotzeko eskubidea dute, hau da, lehen hezkuntzaz eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaz osatzen dena, indarrean dagoen legediak ezarritako eran". Eta 22.1 artikuluan dioenez "Haur eta nerabe guztiek hezkuntza formazioa jasotzeko eskubidea dute, eta ingurune soziofamiliarrean jasoko dute". Legedia bete eta eskubide hori bermatzea da Larraulen egin duguna.

"Unibertsitatez besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak" ezartzen dituen eta indarrean dagoen legedia 21/2009 Dekretua da. Eta Dekretu horren baitan, Eusko Jaurlatzako Hezkuntza Sailak Larraulgo Udalarekin hartutako idatzizko konpromisoari zor, Larruali Eskola propioa eta Lehen Hezkuntza zerbitzua dagozkio 2010-2011 ikasturtean. Dekretu horrek, Hirugarren eranskinean, Eskola Txikiak sortzeko eta mantentzeko baldintzak finkatu eta ratioak zehazten ditu. Hez-kuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, beraz, Dekretu hori, legedia alegia, erres-petatzeko eskatzen diogu Larraulgo Udalak, Guraso Elkarteak, EHIGE erakundeak, Eskola Txikien Koordinadorak eta EUDELek eta bere garaian Eusko Legebiltzarrak -gehiengo osoz onartutako Legez besteko proposamenean-, eta Arartekoak. Legedia betetzeko eskatzen diogu Hezkuntza Sailari, ez besterik.

Martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuak, Ikasleak ikastetxe publikoetan nola onartu behar diren arautzen duenak, 2. artikuluan jasotzen du gurasoek edo tutoreek ikastetxea aukeratu ahal izango dutela Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egindako plangintzaren eremuan. Plangintza eremu hori, halabaina, legea betez eta Jaurlaritzak erabakitako erresoluzioak oinarri hartuta finkatu behar da. Larraulgo gurasook Larraulgo Hezkutza zerbitzua aukeratu dugu gure seme-alabak eskolaratzeko, eta eskubide hori bermatzen jarraituko dugu.

Gu legez jokatzeko gaude, eta noski, bat gatoz Larraulgo Lehen Hezkuntzako ikasleek urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak ezartzen dituen oinarrizko gaitasunak lortu behar dituztela diozunean. Gure seme-alabak dira. Larraulgo eskolan dauden haurrek Lehen Hezkuntzako oinarrizko gaitasun horiek lor ditzaten neurriak jarri ditugu eta Larraulen Lehen Hezkuntzako edukiak ematen ari gara, gure seme-alaben heziketa eta garapena baita gure lehen helburua.

Landa garapenerako 10/1998 Legeak indartzen du gure eskubidea. Jaurlaritzan gaur agintean dagoen alderdiak ere onartu zuen lege honek, hauxe zehazten du Hirugarren ataleko laugarren puntuak: "Hezkuntzako eskaintza landa inguruneko biztanleriarengana behar bezala iristeko modua bermatzea, biztanleria horren berezitasunak kontuan hartzen dituzten irizpide eta baremoekin, hezkuntzako eskaintza landa ingurunera gero eta hurbilagotzen ahaleginduz, batez ere herrigunerik apartatu eta txikienentzako derrigorrezko hezkuntzari dagokionez". Eta "Hezkuntza, kultur eta kirol ekipamenduen artikulazio orokorra erraztea, ekipamenduon balioaniztasuna eta funtzioaniztasuna sustatuz, eta egun dauden desorekak zuzenduz."

Espero dugu, Larraulgo bi gurasori gutunez iragarritako "neurriak", inoiz sortu behar ez zuen egoera hau desbloketatzekoak izatea, gurasoen aurka jotzeak ez baikaitu legez dagokigun eskakizunetik apartatuko.

Aurrematrikulazio datuetan ikusiko duzun bezala, 2011-12 ikasturtean Larraulen 24 ikasle izango dira. 2012-2013an 28 ikasle, eta horrela, 12 urteko zikloan 50 ikasle inguru arte. Horixe baita gaur eguneko 12 urtez beherako ume kopurua Larraulen, eta kopuru hori mantendu edo hazi egingo da, herria hazitzerarekin batean.

2011-12 ikasturtean, ikasle horietatik 6 Lehen Hezkuntzan izango dira Larraulgo Eskolan, eta dagokien curriculuma bermatzeko neurriak hartuko ditugu, orain arte bezalaxe. Hezkuntza Sailak ere halaxe egingo duela espero dugu.

2012ko ekainaren 10ean, Gipuzkoako Eskola Txikien Festa Larraulen izango da. Festa horretan Eskola Txikien koordinakundeak gure herrian ospatuko du Eskola Txikien 25. urteurrena.

Larraulgo Eskolaren gaia berriro ere Eusko Legebiltzarrera eta Gipuzkoako Batzar Nagusietara eramango dugu, eta horretarako jestioak eginda ditugu dagoeneko.

Iritzi publikoari datu guztiekin jakinaraziko diogu zein den egungo Hezkuntza ez Unibertsitarioa arautzen duen legedia, Eskola Txikiak martxan jartzeko baldintzak, eta Hezkuntza Saila zein eratan ari den "aplikatzen" Larraulen legedi hori.

Gure borondatea egoera honi konponbide adostua ematea da. Larraulgo Hezkuntza proiektua legezkoa ez ezik, Hezkuntza Sailari ekonomikoki zero inbertsio suposatzen dion proiektua da, azpiegitura inbertsio hori Udalak egin duelako. Gainera, Larraulgo Udalak instalakuntza horiek zabaltzeko proiektua martxan du, bi urteren buruan bukatuta egongo dena. Gauzak horrela, zenbait aukera ezberdin aztertzea proposatzen dizugu, egoerari alde guztion artean atera-bidea eman diezaiogun:

- *Larraulen Lehen Hezkuntza zerbitzuaren aplikazio progresiboa hitzartzea, Itziarren egin zen antzera.*
- *Erdibideko formula bat adostea, eta Larraulgo Lehen Hezkuntza zerbitzua Pello Errota ikastetxearen baitan kokatzea (orain arte bezalaxe).*
- *Larraulen Lehen hezkutza zerbitzua luzateko egon litezkeen beste aukerak ere aztertzeko gaude.*

Zentzu honetan lehenbailehen bilera bat egitea eskatzen dizugu, Eskola Txikietako koordinakundea eta EHIGE bitartekari direla egoerari konponbidea emateko. “

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA:Larraulgo Udalak, Guraso Elkarteak, EHIGE-k, Eskola Txikien Koordinakundeak, Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapeneko elkarteak eta Aiztondo Mankomunitateak, Mª Antonia Ozcariz Rubio andereari igorri behar zaion idatzia onestea.

BIGARRENA: Xabier Mujika Pagola, Larraulgo Alkate-Lehendakaria ahalmendu, Mª Antonia Ozcariz Rubio andereari igorri behar zaion idatzia sinatzeko.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ondoren Xabier Mujika Pagola, udal honetako Alkate-Lehendakariak, honako proposizioa egiten du Larraulgo Udaleko udal batzak eztabaida eta onar dezan.

"*PROPOSIZIOAK*

Azken hilabeteotan Tolosako anbulatorioko hainbat espezialitate-zerbitzuen kontsultak bertan egiteari utzi dio Osakidetzak eta Nuestra Señora de la Asunción klinika bidez ematen hasi da. Hori gertatu da, gutxien gutxienik oftalmologiako, urologiako eta digestiboko kontsultekin. Horrek, anbulatorioaren espezialitate kontsulten etorkizunari buruzko kezka sortu du bai bertako langileen artean eta baita herritarren artean ere. Itxura batean, 2011ko otsailetik aurrera Osakidetzak espezialitate-kontsulta guztiak aipatu klinika pribaturen bidez egin nahi ditu. Horren ondorioz, osasun-sistema publikoa kaltetuta eta ahulduta gelditukо da Tolosan eta Tolosaldean.

Bestetik, Tolosaldeko osasun-sare publikoak hutsune nabarmen bat du eskualde-ospitalerik ez dagoelako bertan. Gure eskualdean indar eta pisu demografiko nahikoa izan dezake eskualde-ospitale bat izateko, horrela, osasun-sistema publikoaren eskaintza osatzeko eta herritarrak egokiago zerbitzatzeko.

Horregatik guztiagatik, mozio hau aurkeztu du, Larraulgo Udalaren osoko bilkurak onar dezan:

1.-Larraulgo Udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailari Tolosako Anbulatorioari eta Tolosaldeko osasun-zerbitzuei buruz dituen asmoak azal diezazkiola eskatzea eperik motzenean.

2.-Tolosaldeko udalek aldarrikatzen dute, orain artean Tolosaldeko atentzio osa, lehen arretako zein espezialitatea, eskaini den era berean jarraitzea aurrera begira mozio honetako 3. Atala gauzatu artean.

3.-Larraulgo Udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailari eska diezaiola egin dezala azterketa sakona Tolosaldean eskualde-ospitale bat ezartzearen beharraz eta komenientziaz, beti ere, herritarren ongizatearen ikuspegitik eta kontsidera dezala eskualde-ospitale hori azpiegitura pribatu baten publikazioa baliatuz ezarri ote daitekeen."

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Xabier Mujika Alkateak aurkezturiko mozioa bere osotasunean onestea.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 20:45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA